

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2013ko uztailaren 26a. IX. urtea. 2.635. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Villabonako Malkar plazan, Oinkari dantza taldekoek soka dantza ikuskizuna eskaini dute. I.TERRADILLOS

‘Harri-jasotzaile. Harriaren indarra’ izeneko erakusketa ikusgai dago San Telmon

Harria-Herria taldeak prestatu du, eta bertako kidea den Patxi Jauregi alegiarrak azaldu duenez, harri-jasotzea plazara atera nahi dute berriro eta bere etorkizuna bermatu **6-7**



Julen Castañeda

Ponferradinako jokalaria tolosarra

«Senitartekoen eta lagunen babesik gabe, hau guztia oso zaila egingo litzaidake»

Elkarrizketa **3**

Oharra

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA egunkariko lan taldearen oporrak direla eta, gaurkoa da iraila bitartean argitaratuko den azken alea. Hurrengoa irailaren 3an argitaratuko da.

Jauregi eta Ibarbia, azkarrenak Santio jaietako krosean

Villabonako XXXIII. Herri Krosean guztira 238 korrikalarik parte hartu dute; ikurrina igo du Galder Azkue alkateak Errebote plazan

Soka dantzak ere protagonismoa izan du Santio Egunean; gaur, besteak beste, Cycling Maratoia Maiatzaren Lehena plazan **4-5**

Plazerra izan da

Tolosaldeko euskal komunikabideak proiektu berri baten barruan sartu dira. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariarekin batera, Txolarre irratia, **Galtzaundi** aldizkaria eta 28 Kanala telebistak izen baten pean egingo dute lan. Tolosaldeko komunikabideak izaki, eta bizi diren garai zail hauen aurrean, Tolosaldeko udalek bultzatuta hilabeteak dira bateratze prozesua martxan jarri zela, eta halaberharrez, Areso eta Leitza herriak proiektu honetarik kanpo geratuko dira.

2001eko abenduan argitaratu zen lehen aldiz **Tolosaldean Egunero** egunkaria. Tolosaldeko 28 herrien albisteak eta gertaerak euskaraz eta egunero ematea zuen helburu proiektu hark. **Euskaldunon Egunkaria** 2003ko otsailaren 20an itxi zuen Guardia Zibilak, Espainiako Auzitegi Nazionalak Juan del Olmo epailearen agindua betez. **Euskaldunon Egunkaria**-ko langileek, **Egunero** egunkariaren tokia hartu zuten, **Berria** sortu bitartean. Eta Tolosaldean egunkaria **TOLOSALDEKO HITZA** izatera pasa zen. Ia urtebete beranduago, Tolosaldeko egunkariak Nafarroara egin zuen salto, Leitzaldera, historikoki Gipuzkoako eta Nafarroako bi eskualdeek beraien artean izan duten harremanaren seinale. Honela, hilabeteetako lanketaren ostean, **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkari izatera pasa zen, 2004ko maiatzaren 21ean. Egun batzuk lehenago, hau da, maiatzaren 15ean egin zen ekimen berriaren aurkezpen ekitaldia Leitzan.

Tolosaldeko 28 herrietako albisteekin batera, asteartetik igandera, Leitza eta Aresoko informazioa euskaraz emango zuen egunkariak. Jaione Astibia leitzaarra hasi zen kazetari lanetan, eta banatzailearenarekin ba-

tera, bi lan postu sortu zituen proiektu berriak. Bi herrietako alderdi politiko, kirol eta kultur elkarre eta ikastetxeetako ordezkariekin egin zen lanketa.

Hainbat urteren ondoren, murrizketak etorriko ziren egunkarira, 2010eko azaroan. Sei egunetan argitaratzen lau egunera pasatu zen, eta horrek Leitzaldek bertatik lan egiten zuen kazetaria desagertzea ekarriko zuen, eta baita orria ere. Baina, ohiko egunkariari ostiraletan zortzi orrialdeko **NAFARROAKO HITZA** gehituko zitzaion, **Berria** egunkaria eta **HITZAK** elkarlanean eskaintza berrituz. Harrez geroztik Tolosaldeko berri izan dute Leitzaldean eta alderantziz. Bederatzi urte bete ditu maiatzean Leitzaldean **HITZAK**, eta uztailaren amaierarekin batera utziko dio argitaratzeari.

Bi herrietako udaleko ordezkariak, elkarrekin kideek nahiz norbanakoek «pena» sentitzen dutela, eta «hutsunea» nabaritu-kodutela azaldu dute azken egunetan. Baita, haserrea eta amorrua ere, proiektuak ezingo delako jarraitu, baina **HITZAK** bertan izan duen garrantzia ikusita, bere ordeko bat sortzeko ahalegina egitea gustatuko litzaiekeela aipatu du gehiengoak. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA**-ren erredakzioan ere ideia eta hitz berak dabilta denen ahotan.

Bukatzeko, eta nola ez, esker-erak eman nahi dizkiegu urte guzti hauetan, era batera edo bestera babestu gaituzten guztiei: norbanakoak, erakundeak eta elkarrekin. Hasierako urteetan, hau guztia posible egiten lagundu zuten guztiei, harpidedun izan direnei, iragarkiari jarri dituztenei... Plazerra izan da Leitzaran ibaiaren bestaldeko albisteak jaso eta jorratzea.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza

Irudia o Tolosa



KARRERA-IZAGIRRE GARAILE, PALAN

Tolosa CFk urtero antolatzen duen Paleta Txapelketako irabazlea Karrerak eta Izagirrek osaturiko bikotea izan da. Herenegun jokatu zuten finala Aldazabal-Goikoetxearen aurka, eta 30-26ko emaitzarekin gailendu ziren. Irabazleak atzetik

joan ziren, baina partidari buelta ematea lortu zuten, bukaera ona eginez. Hirugarren eta laugarren postuetarako partidaren, berriz, Zabala-Lazkanok irabazi zuten 30-19 Apeztegia-Maizaren aurka. Giro polita nagusitu da ohi bezala txapelketan. ir.

→ Laburrak

Garagardo Azokako zozketen zenbaki sarituak

VILLABONA › Garagardo Azokaren barruan egin zen bazkari edo afariaren zozketen emaitzak ondorengoak dira: 3859, 3243, 4385 (Txapeladun); 3777, 3309, 4418 (Orkonpon); 3979, 3259, 4243 (Iturri Goxo).

Gazteentzako etxebizitzaren inaugurazioa asteartean

IBARRA › Gazteentzako etxebizitza dotzionalen inaugurazioa uztailaren 30ean egingo dute. 19:30ean hasiko da ekitaldia, eraikinean bertan.

Ohiko bilkura egingo dute gaur Leitzako udaletxean

LEITZA › Udalbatzaren ohiko osoko bilkura egingo dute gaur Leitzako udaletxean. 21:00etan hasiko da, eta irratiko esatari zerbitzuaz eta poligonoaz ariko dira, besteak beste.

Joxean Tolosa Pilota Txapelketako partidak

AMEZKETA › Joxean Tolosa Pilota Txapelketaren barruan, gaur, 21:00etatik aurrera partidak hauek izango dira: kadeteen mailan, Martija (Uharthe)-Beloki (Bedaio); gazteak, Aburuza (Bidegoian)-Zubiria (Berrobi) eta Ugaldede (Oiarzun)-Larrañaga (Gasteiz); nagusiak, Ezkurdia (Arbizu)-Santxo (Usurbil). Bihar, 22:00etatik aurrera: kadeteak, Bakaikoa (Etxarri)-Eskudero (Leitza); gazteak, Etxebarria (Nabarniz)-Ormazabal (Zizurkil); nagusiak, Urretabizkaia (Ikaztegieta)-Tolosa (Anoeta).

Udazkeneko Jokoetan izena emateko aukera

TOLOSA › Iturriza erretirodunen elkarrekin zabaldu du Udazkeneko Jokoetan izena emateko zerrenda. Tutean, puntuan, musean, dominoan, tokan eta xakean ariko dira. Bulegoan eman ahalko da izena, goizean, astelehenerdik ostiralera, irailaren 12a baino lehen.

Udaberri dantza taldeko kideak Hungariako folklore jaialdian izango dira

I. Terradillos Tolosa

Tolosako Udaberri dantza taldeak Hungariako Szeged hiriko folklore jaialdian parte hartuko du abuztuaren 7tik 12ra bitarte. Taldeko 35 dantzari eta musikari gogor entsetzen ari dira, eta Euskal Herriko txoko guztietako dantzak ezagutaraziko dituzte. Hala, bidaiara Europako hainbat txoko ezagutzeko baliatuko dute.

Gorrotxategi eta Sukaltalkaren tailerretan parte hartzeko aukerak

I. Terradillos Tolosa

Sukaltalkaren *Zu zeu chef onena* tailerra izango da abuztuaren 3an eta 7an, 11:00etatik 15:00etara. Parte hartu nahi duenak info@sukaltalka.com edo 943 017 636 zenbakira deituta eman dezake izena.

Bestalde, Gorrotxategiren *Traudizio gozoa* tailerra, bihar, abuztuaren 24an eta irailaren 28an izango da, 11:00etatik 13:30era. 943 697 413 edo tour@tolosaldea.net en eman daiteke izena.

www.inmosalbide.com

Salbide
SALBIDE
Higaztegiak

Aia. Urtebete Auzoan, 120m²-ko berriz (4 gelako etxebizitza) eta 17.500m²-ko terranoa. Oso polita. **Prezio onen 240.405 euro!**

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onen. 24.500.000 pezeta.

Zarautz. Vista Alegre. 87m². 3 logela, 2 bainugelak, terraza (9m²). **282.476€ euro!**

Zarautz. Aritzabalde. 3 logelako, 2 bainugelak terraza eta trastelekuak. Oso egoera onen. Altua eta eguzkitasun. 75.000.000 pezeta!

Zarautz. Aida zaharretan. Logela bateko etxebizitza. **150.253 euro!**

Zarautz. Aritzabalde piztan. 3 logelako etxea (87m²) + trastelekuak (11m²) + garaje itxia (20m²). 61.562.820 pezeta. Oso prezio onen.

Zarautz. Mixelena Kalea. 3 logela, 2 bainugelak, terraza eta trastelekuak. Igozaila eta gara. **352.425€ euro!**

Bizkaia kalea, 6 - 20800 Zarautz - Tel: 943-01 07 00 - Mug: 665-71 85 96

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Julen Telleria

Auzoko plazan, artean oraindik ere ume mokoa zela, hasi zen Julen Castañeda (Tolosa, 1990) baloiarekin trebatzen. Eguberritako Shanti Torneoak izan ziren bere lehendabiziko plazak, eta ordurako nabari zen bazuela futbolera gaitasun berezi bat. Txikia eta azkarra zen, eta ez zegoen hari baloia kentzeko modurik.

Ume hura planta ederreko mutila da orain, baina ez du baloiarekiko ez harremanik, ezta gaitasunik ere galdutako. Bizitza guztian Realean aritu ostean, Bigarren Mailako Ponferradina taldean hasi da orain. Gertukoengandik urrun, bere ametsetik gertuago.

Zen zen txikitari futboleari hasi zen umeharen ametsa?

Gipuzkoar askok bezala, betidanik jarraitu izan dut Realaren ibilbidea. Telebistaz eta ikusten nituenean, noizbait haiek bezala jokatzera zen nire ilusiorik handiena. Realean jokatu nahi nuen. Eta begira zer diren gauzak, bizitza guztia daramat Realean, nahiz lehenengo mailara iristea lortu ez.

Amets hura bete duzu, beraz?

Hein handi batean bai, baina ez erabat. Izan ere, hamabi urte pasa ditut nire talde kuttunean, baina azken pauso hori ematea falta izan zait, garrantzitsua akaso.

Nola iristen da bat futbol jokalaritza profesionala izatera?

Ez dago beste munduko sekreturik, zaletasuna izan eta saiatzea baino. Futbola benetan gustatzen zaiona erabat ibiliko da baloia hanketan duela, etxetik iristen den unetik, etxera itzultzen den arte. Ni ere halaxe ibiltzen nintzen txikitari. Gero, gaitasunik baduzu, deituko dizute talderen batetik edo bestetik, eta aurrera egiten saiatu. Luzea da bidea.

Emaitzak eta errekonozimenduak ikusten dira, baina horien atzean, horrenbeste ikusten ez diren sakrifizioak ere egongo dira...

Beti esan izan da futbolaria izatea sekulako mauka dela, dirua eta ospea ekartzen dituelako, baina aldi berean, oso lotua ere bada. Nire lagunak oporretara edo parandara joaten direnean, nik askotan etxean geratu behar izaten dut. Elikadura zaintzea, forma fisikoa mantentzea... Hori guztia ere kontutan izan beharkekoa da.

Zen izan dira orain artean zure ibilbideko momenturik gozoena eta garrantziena?

Unerik onena, zalantzarik gabe, jubeniletan Ohorezko mailako txapeldun geratu ginenekoa. Orduan esan zidaten Sansera pasako nintzela. Txarrena, berriz, kadede mailan, lauzpabost lesio izan nituelako, eta oso gaztea izanda, ia batere jokatu gabe egon behar izan nuelako.

Realeko jokalaririk gazteena izan zinenetik hamabi urte pasa dira. Zer da zuretzat Real?

Niri Realak dena eman dit, hasi nintzen garaitik gaur arte. Urte



HITZA

Julen Castañeda S.D. Ponferradinako jokalaria

Hogeita bi urte ditu tolosarrak, eta horietatik 12 eman ditu Realean. Orain, erronka berri bat du aurrean, datorren denboraldian, Bigarren Mailako Ponferradinan arituko baita.

«Dударik gabe hartu beharreko aukera izan da Ponferradinakoa»

hauetan guztietan izandako taldekideak, lagunak orain, betirako izango ditut. Toki eta jende asko ezagutzeko aukera emateaz gain, inguruko jokalaririk onenekin aritzeko zortea ere izan dut

Realari esker. Oso harro nago bertatik pasa izanaz.

Orain, lehenengo esperientzia bizitza tokatzen zaizu Donostiatik urrun. Nola hartu zenuen Ponferradinaren deia?

Proposatu zidaten une berean pentsatu nuen niretzat aukera ezin hobea izango zela, nahiz eta horrek atzean gauza asko uztea eskatu. Maila bat gorago jokatzeko aukera daukat orain, eta urte

ona eginez gero nork daki non bukatuko dudan. Ponferradinakoa, dudarik gabe hartu beharreko aukera izan da niretzat.

Zer moduz hartu zaituzte taldekide eta entrenatzaileak?

Lehenengo unetik sentiarazi naute taldeko partaide, harrera ezin hobea izan da. Gainera, nire antzerako egoeran taldekide gehiago ere badaude, eta erabat elkarrekin ibiltzen gara. Zentzu horretan, ez daukat kezatzeko motiborik.

Honelako aldaketa baten aurrean, gertukoen babesa ezinbestekoa izango da zuretzat...

Senitarteekin eta lagunenekin gabe oso zaila egingo litzaidake hau guztia. Koadrilako lagunekin harreman estua mantentzen dut, eta gurasoekin eta neskalagunarekin ere egunero hitz egiten dut telefonoz. Denei eskerrak emateko moduan naiz.

Zure ibilbide profesionalan aurreapauso garrantzitsua dela aipatu izan duzu. Nola ikusten duzu zure burua bigarren mailan aritzeko?

Txapelketa berria da niretzat, eta ikusi egin behar nola moldatuko naizen. Behin erritmoa hartuta, partidak jokatzeko hasita, ez dut uste arazorik izango dudarik.

Kolore txuri urdinak mantenduko badituzu ere, noizbait Realeara itzultzeko ilusiorik baduzu?

Egia da bertan hamabi urte egin ondoren, beti izango dudala itzultzeko gogo, baina une honetan, horrek ez nau kezkatzen. Orain, hemen lan txukuna egitea da nire ilusiorik handiena.

Futbolariaren karrera profesionala ez da oso luzea izaten, baina zu etorkizunerako ere prestatuta zaude.

Gurasoek betidanik esan izan didate futbola ez dela betirako izango, eta nik ere garbi neukan ikasketak bukatzea beharrezkoa zela. Erdi mailako lanbide heziketak ikasketak amaituta ditut.

Pertsona moduan, nolako da Julen Castañeda?

Umoretsua oso. Lagunartean egotea ikaragarri gustatzen zait, eta txantxetarako beti prest. Nahiz eta hasiera batean lotsati xamarra iruditu, behin irekitzen naizenean ez dago geratuko nauekin.

↓ Iragarki laburrak**GALDUTAKOAK**

Txakurra. Arratoi-txakur arrazako txakur gorri-marroixka galdu zen duela bi aste, Hernialdeko Olaza bailara inguruan. Zerbait jakin dezakeen edonork, deitu dezala 943 653525 telefono zenbakira.

SALGAI

Sagasti. Ezkio-Itsason, 1.000 sagarrondo inguru daukan eta oso egoera onean dagoen sagastia salgai. Prezio oso interes-

garria. Interesatuak, deitu 660 352745 telefono zenbakira.

LAN ESKAINTZA

Ettxeko lanetarako. Emakume euskalduna behar da, haurra goizez eskolara eraman eta atsean lau orduz ettxeko lanak egiteko. Interesatuak, deitu 622 163774 telefono zenbakira.

Estetizista. Esperientziadun estetizista behar da. Interesatuak, deitu 943 674107 telefono zenbakira.

Zerbitzaria. Tolosaldeko taberna baterako neska euskaldun eta eskarmetuduna behar da zerbitzari lanak egiteko. Interesatuak, deitu 686 954069 telefono zenbakira.

LAN BILA

Ettxeko lanak. 08:00etatik 14:00etara, ettxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientziadun emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea dauka. Deitu 943 69

68 82 edo 606 521992 telefono zenbakietara.

Hauze Garbitasunak. Garbiketako orokorrak: etxeak, bulegoak, aurrekontua eskatzeko, deitu konpromisorik gabe 681 152 494 telefono zenbakira.

ESKARIA

Erremolkea. Autoarentzako bigarren eskuoko erremolkea erosi-ko nuke. Neurriak, 1,5 metro eta 1,10 metro artean. Deitu 649 510941 telefono zenbakira.



Villabonako Santio jaien bigarren egunean ikurriaren jipera ekitaldia egin zuten. Udai ordokariekin batera, herriko dantzariak ikurriaren dantza eskaini zuten. A. MAZ

Joseba Jauregi eta Aitziber Ibarbia nagusitu dira XXXIII. Herri Krosean

Villabonako Santio jaietako herri krosean 238 partaide ateratu dira; Galder Azkue alkateak igo du ikurrina Errebotek plazan

Gaur, 11:00etatik aurrera, Cycling Maratoia egingo dute bi saiotan banatuta

Asier Imaz Amasa-Villabona

Villabonako Santio jaiak bererengun hasi ziren, eta atzo, XXXIII. Herri Krosean txanda izan zen. Komikialariek berro izan zuten laguna, eta irteera punturatsa zabalago agertu ziren. Nagusien mailan, Joseba Jauregi tolesarra eta Aitziber Ibarbia zuzenkiak irabazi ziren nagusi. Biak helmugarik barrik iritsi baziren ere, aurka-

riak ez zituzten oso urrutiri izan, batez ere gizonen mailan. Bi irribide mota sinpletu zituzten Zumbeltz Elkarteak kideek. Gazteenak bide mota ez ibili zituzten, eta jubentzetik gorakoak, itzuli handian aritu ziren keliak. Nagusiek, adibidez, zirkuituari hiru itzuli emanaz, gutxira 7,5 kilometro egun zuzen. Krosa amaitu ondoren, ikurriaren jipera egin zuten Errebotek

plazan. Galder Azkue ikurri erraldia zintzilikatu ondoren, dantzariak ikurri dantza egin zuten. Ekitaldian, udal ordezkariak Euskal Herria nazio bat dela aiparriatu zuten, eta «guzuz», ikurrina dela.

Arratsaldean, besteak beste, Kirioleuna eta sokamuturra egon ziren.

Gaur, Cycling Maratoia Maiztzaren Lehen plaza zuzen Cycling Maratoia egingo dute gaur, 11:00etan. Maratoiak ordubetiko bi zati izango ditu, eta parte hartze izena emanda egon behar da. Horretarako epea hilaren 25an amaitu zen. Bilak, urtero bezala, Erroteri Regimn ospatuko dute hillabonatarrek. Bertan, besteak beste, sa-

Sailkapenak

BENJAMINAK

- 1. Jortz Martin (Villabona)
- 1. Janire Mujika (Villabona)

ALEBINAK

- 1. Alex Goya (Villabona)
- 1. Elisabet Laranaga (Villabona)

INFANTILAK

- 1. Marex Izusta (Villabona)
- 1. Aroa Artega (Villabona)

KADETEAK

- 1. Jon Ander Arsa (Donostia) 08:50'
- 1. Maialen Poyadere (Villabona) 12:37'

JUBENILAK

- 1. Ander Ebeberria (Villabona) 18:50'

NAGUSIAK

- 1. Joseba Jauregi (Tolosa) 25:05'
- 2. Ibai Alba (Hernani) 25:08'
- 3. Eneko Garin (Villabona) 25:16'
- 1. Aitziber Ibarbia (Zuzenki) 30:07'
- 2. Lurdes Kolomo (Zuzenki) 30:47'
- 3. Uxue Yena (Umieta) 30:53'

BETERANOAK

- 1. Iker Pagola (Tolosa) 25:50'
- 1. Lurdes Kolomo (Zuzenki) 30:47'

VILLABONAKO LEHENAK

- 1. Eneko Garin
- 1. Itatsun Zubeldia

GAZTETXOENA

- 1. Daniel Azkue (Villabona) 2urte

ARRIARAN
—1949—

ABANTAILA HOBERENETAZ BALIATU ZAITEZ!!!

ESTACION DE SERVICIO ARRIARAN, S.L.
LARRAMENDI 28, 38. postal Kutxa
20040 TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL.: (943) 67.48.28 • FAX.: (943) 67.48.82
www.arriaran.com

AVIA


TXARTELEKO DESKONTUA %50AN GEHITU

GARBI EZAZU ZURE KOTXEA DOHAIN
ARRIARAN GASOLINDEGIAN
GASOLINAZ HORINTUZ GERO

*OHARRA: kotxea ez da erretze gaiturik egon behar.

txorron hitza®

Euskal Herria 22
• IBARRIA •
943 67 02 44



XXXIII. Herri Krosean irabazte eta irudi eder ugari izan zituen. 230 konkiralari baino gehiago hartu zuten irteera, eta gauza guztien gainetik, giro ederra nagusitu zen. A. MAZ



Kiroleunean, besteak beste, gastetxoak ping-pong-ean aritu ziren. Ondoren, Malkar plazan, Oinikari dantza taldekoek soka dantza ikuskizuna eskaini zuten. L. IZURZUOLU

1 Ostatu Hernalde Jatetxea
Bi laguntzako bazkaria edo afaria

Hernalde
Tel.: 943-65.24.96

Eskarri egiteko, bi hilabete.

2 Mahala
Bi sorta

http://www.mahalanaturala.com

- Lutxi Iztueta (Tolosa)
- Agustina Agirrezabala (Tolosa)

Sardunek etxean jasoko dute sorta.

3 Eureka zientzia museoa
Bi laguntzako bina sarrera

Mikeletegi pasealekua, 43-45
Tel: 943 01 21 78 • www.eurekamuseoa.es

- Onintza Lizarra (kaztegieta)
- Josune Agirrezabala (Tolosa)

Sardunek etxean jasoko dituzte sarrerak.



Donostiako San Telmo museoan Harri-jasotzaile. Harriaren indarra erakusketa ikusi daiteke irailaren 8 bitarte. J. SAIZAR

Harri-jasotzea berriro plazara atera nahi du Harria-Herria taldeak, eta bide horretan lan egiten ari da. San Telmo museoan jarritako erakusketa da horren adibide.

Duintasuna eman nahian

Joxemi Saizar

Elkarren artean indarra neurtzeko grinatik sortutako kirola oinarri hartuta, *Harri-jasotzaile*. *Harriaren indarra* izeneko erakusketa ikusi daiteke doan Donostiako San Telmo museoan irailaren 8 bitarte. Tartean, eskualdeko hainbat protagonista daude, bai antolatzaile gisa, bai harri-jasotzaile gisa. Antolaketa arduratu den Harria-Herria taldean ari dira Patxi Jauregi alegiarra eta Joseba Urretabizkaia tolosarra, besteak beste. Lehenengoarekin hitz egiteko aukera izan dugu, Euskal Pilota Federazioko lehendakari izendatu eta handik egun gutxira.

Erakusketak bi aurrekari ditu: urrian kaleratu zen *Harria 100 urte* liburua eta Donostiako Victoria Eugenia antzokian harri-jasotzaileei egin zitzaien omenaldia. «Harriak eta harri-jasotzaileak biltzen bi urte eta erdi pasatu genituen, larumbatero goizetik gauera lanean, Mikel Iriarte idaz-

leak, Joseba Urretabizkaia eta nik kontaktoak egiten. Liburu bat egitea zen lehen asmoa», dio Patxi Jauregik. Horrela bildu zizuten liburuan agertzen diren 110 harri-jasotzaileak, horietako batzuk hilak jada. Kirol honen historiari 100 urte dituela konturatu ziren. Lan isilean aritutako



Bedaio eta Ugarteko lau harri-jasotzaileek modu berezian altxatzen zuten harria: bizkarretik»

PATXI JAUREGI
Harria-Herria taldeko kidea

persona horiek sekula jaso gabeko «aitortza edo omenaldia» mezei zutela pentsatu zuten orduan eta hori etorri zen ondoren, liburuko gehienak edo beraien ordekoak ekitaldi hungigarri hartan elkartzuz.

Solaskidearen aita, Ramon Jauregi *Bedaio* da liburuko eta erakusketako protagonistetako



Damasa Agirregabiria eta *Errekartetxo* harri-jasotzaileak. HITZA



Ramon Jauregi *Bedaio* harri-jasotzailea, harria bizkarretik jasotzen. HITZA

bat. Bera bezala Bedaiokoa zen Ramon Agirre eta Ugarteko Asensio eta Jose Miguel Artola anaiak oso modu berezian aritu ziren harria jasotzen: bizkarretik. Bakarrak izan ziren modu horretan aritu zirenak, gehienetan harri baldarrek, errekatik jasoak. «Aita ez zen gizon handia, 1,70 m eta 84 kg, beraz ezin zuen karga handirik jaso era normalean, harri luzea izanik karga oso behean, oso urruti gelditzen zitzaiolako buelta eman ahal izateko. Horregatik aritzen zen modu xeblere eta zail horretan, beraien artean asmatua. Bere izena daraman harriarekin marka jarri zuen: 226 kiloko harria minutu eta 37 segundutan altxatzea. Bere garai onetan saiatu ziren Perurena, Ostolaza eta Aimar Irigoien nire iloba, baina ezin izan zuten altxatu», dio Jauregik.

Eskualdeko harrijasotzaileak

Aipatutako ez gain, eskualdeko goi mailako harri-jasotzaileak azaltzen dira baita ere erakusketan: Iñaki eta Iñaxio Perurena eta Migeltxo Saralegi leitzarrak eta Jose Martin eta Jose Mari Mendizabal eta Iñaki Gorostidi adunarrak. Baita goi mailara iritsi ez ziren Martin Bengoetxea billabonatarra, Asteasun bizi den Jose Antonio Lopetegui *Agerre II.a*, Santiago Otaegi *Aroztegi* eta Jose Mari eta Ignacio Otaegi *Gibitegi I.a eta II.a* goiazarrak, Jose Ibar *Urtain I.a* zizurkildarra, Juan Miguel Otaegi *Betelu* bidaniarra, Gabriel Iraola eta Joseba Sarasola asteasuarrak, Josetxo Urrutia leitzarra eta Joseba Zubeldia ugartearra.

Eskualdekorik ez izan arren, kirol honetan aritu edo ari diren emakumeak ere ageri dira, hasi *Errekartetxo* harri-jasotzailearen bikotea zen Damasa Agirregabiriatik eta gaur egun ari direnen arte.

Erakusketaren beste atala harriek osatzen dute. Modalitate desberdinetako bost harriak jarri dituzte ikusgai, homologatuak dauden errekangularrak, zilindrikoa, kuboak, kopa eta bola. Eta gero historia handiko harriak ere bai, baldarrak, tartean *Bedaio* eta Amezketako *Albizuri Haundi*.

Patxi Jauregi bera gaztetan aritu zen harriekin, baina azkenean pilotan aritzea erabaki zuen eta palista izan zen urte batzuetan. Pilota eta herri kirolen mundua ez du utzi eta antolatzen eta federazio munduan aritu da beti. Lehen esan bezala, Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzako lehendakari aukeratu berria da. «Pilotaren egoera ez da ona, baita eskuz ere, jaialdi arruntak ez direlako jada egiten, txapelketak eta torneoak besterik ez. Bada herri kirolen egoera okerragoa da. Sokatira eta sega libratzen dira bakarrik. Harri jasotzean kalitate handiko kirolari gutxi daude. Aimar Irigoienek ez du aurkaririk eta hori ez da ona, ez berarentzat, ez kirolarentzat. *Izeta*, Bertiz, Telleria... hor daude, baina... Inaki Perurena maisua izan da eta bide berriak ireki ditu. Bere semea, berri, arazo fisikoekin dabil. Gaur egun inork ezin du harria jasotzeki bakarrik bizirik, dio erakusketaren antolatzaileak. Urteroko txapelketak mantentzen dira, lurraldeka pisu txikiak harriekin eta Euskadikoa handiekin eta txikiekin, baina apustuak ia desagertu egin dira. Azkena, duela lau urte *Izetak* eta Aimar Irigoienek egin zutena izan zen. Herrietako jailetako erakustaldiak ere asko jaitsi omen dira krisiarekin. Plazak betetzen ziren garaiak joan ziren.

Sortu diren eskoletan du fedea Jauregik, Zarautzen *Izetak*, Orion Ostolazak, Urnietan Telleriak, Elizondo inguruan Larretxeak dituztenak. Eta Harria-Herria taldea dena fundazioa bilakatu nahiko luke, «horrela enpresek eta errazago emango luketelako laguntza, erdia berreskuratzeko aukera dutelako gure herri honen zainak zainduz». Jende berria ere elkartu omen zaie proiektu honetan. Harria plazara atera nahi dute berriro. Esku berriak lortu hura jasotzeko.

Patxi Jauregi ◊ Euskadiko Pilota Federazioko lehendakaria

Patxi Jauregi alegiarra izendatu berri dute Euskadiko Pilota Federazioko lehendakari. «Pilotazaleek aldaketa sakona nahi dute», esan du, eta federazioari «astindua» eman nahi dio.

«Pilotaren egoera oso txarra da, eta oso baliabide gutxi dauzkagu»

Josu Fernandez Berria

Patxi Jauregik (Alegia, 1956) lau aste eskas daramatza Euskadiko Euskal Pilota Federazioko presidente karguan, iragan ekainaren 28an egin ziren hauteskundeetan Fernando Azkarateri irabazi zionetik. 86 bozka lortu zituen, aurkariak baino 23 gehiago. «Asko poztu ninduen emaitzak. Kontuan hartu behar da kanpainan bete-betean sartu zirela Azkarateren hautagaitzarekin Arabako eta Bizkaiko federazioetako presidentek eta Munduko Kontseiluko lehendakariak. Hala ere, eta hori kontuan hartuta, jendeak bozka guri ematea oso esanguratsua da, pilotazaleek aldaketa sakona nahi dutela esan nahi du». Jauregik ere «astindu bat» eman nahi dio federazioari.

Nolakoak izan dira lehen egunak?

Lehen asteburua lasaia izan zen, baina azkar hasi zen sutan saketakoa. Aurreko astean hasi ginen lanean, egoera orokorra aztertzen, egoera ekonomikoa nolakoa den, kirol aldetik zer konpromiso dauden... pausoak ematen hasteko.

Eta nolakoa da egoera?

Txarra. Oso baliabide gutxi dauzkagu. Egoera ekonomikoa oso txarra da. Daukaguna ahalik eta hoberena inbertitu behar dugu. Oinarrizko pilotan lana egin nahi dugu buru-belarri, umeekin.

Zer izan beharko luke, zuzentzat, Euskadiko Pilota Federazioko?

Pilotarekin zerikusia duen ororen motorra, klubekin harreman estua duena. Elkartasuna eta sendotasuna izan behar du, adostasunaren bidetik lana eginez.

Eda izan orainarte?



E. EZEIZA

Hartu-emanak ez dira oso onak izan azken urteotan Euskadiko eta lurraldeetako federazioen artean, eta klubekin, zer esanik ez. Oso urrutiko erakunde bat bezala ikusten zen Euskadiko Federazioa, eta ezinezkoa da pilota mundua hain txikia izanik horrelako distantzia egotea.

Zein dira eronka nagusiak?

Lurraldeetako federazioekin eta klubekin hartu-emanak sendotzea eta gertukoak izatea. Denon artean egin behar dugu lan, lehentasunak mahai gainean jarri eta adostasunaren bidetik neurriak hartu.

Zein dira lehentasun horiek?

Klubuen egoera oso txarra da. Urte askoan arduradun moduan lanean aritu denak ez du erreleborik.

Pentsatzen dugu jende gaztea prestatu behar dugula lan hori egiteko. Txapelketen egutegiari ere begirada bat eman behar diogu, asko pilatu egiten baitira. Enpresa profesionalekin ere hitz egin behar dugu.

Zertaz?

Elkarlan bat sortu nahi dugu. Material aldetik lagundu dezakete, esaterako. Profesionalak ere, haurrentzat erakargarriak direla jakitun, bere aletxoak jar dezakete. Pentsatzen dut eta espero dugu enpresek asko egin dezaketela.

Ba al dago harrobirik?

Badago, eta gehiago egon daiteke lana ongi eginez gero. Gozokiak jarri behar dizkiegu umei pilotan jokatzera etor daitezten. Eta baita gaztetxoei ere, 13-14 urtereko.

kin ez dezaten pilota beste kirol batengatik utzi. Denon esku dago pilota erakargarri egitea.

Nolakoa da palaren egoera?

Oso larria da egoera. Palako enpresa indartu nahian ari da, baina bakoitza bere bidetik joanda indarrak banatzen dira, eta eraginkortasuna galtzen da.

Zestarena?

Jende gehiago dabil. Indar pixka bat duten eskolak daude. Baina ongi egotetik urrun.

Erremontearena?

Enpresa bat dabil lanean Galarretan, eta Nafarroan fundazio bat. Baina oso egoera larrian daude.

Esku pilotarena?

Esku pilota egoera hobean dagoelako ustea telebistak ematen du, baina ez da errealitate bat. Pilota ez da Irujo eta Aimar, edo txapelketetako finalerdi eta finala. Lehen urte guztian egiten ziren jaialdiak.

Eta emakumezkoen pilotarena?

Baikorra naiz arlo honetan. Azken urteetan emakumeen proiektu bat hasi genuen Gipuzkoan,

«Esku pilota hobeto dagoenaren irudia ez dator bat errealitatearekin»

eta neska mordoxka dabilza, ondo, gainera. Gure lantaldean hiru emakume daude.

Zein da irtenbidea?

Formularik egokiena gaztetxoei jokatzeko erraztasunak ematea da. Arropa, pilotak, erremintak... erraztu behar zaizkie, gozokia jarri behar zaie. Txikitatik, hezkuntzaren bidez grina sortu eta erraztasuna ematea beharrezkoa da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info
Anoeta/Aldea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza/Aldea: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Zorionak etxeko txikienei!

Arruabarrena II eta Periodikus II. Ondo pasa gaur eta asteazkenen!

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●● **agurrak**

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Berastegi.** Sanlontzotako jaien barruan herri afaria egingo dute Berastegin, abuztuaren 8an, osteguna. Txekorra buruntzian prestatuko dute. Txartelak salgai daude, 12 urtetik beherakoentzat 12 eurotan eta helduentzat 18 eurotan. Urepele eta Basurde elkarteetan, Zelai tabernan edota udaletxean eskuratu ahalko dira. Azken eguna, hilaren 31a izango da.

■ **Ikaztegieta.** San Lorentzo jaietako otorduak txartelak salgai daude Ostatu eta Toki-Alai tabernetan. Erosteke azken eguna hilaren 29a, astelehena, izango da.

JAIK

Gaur

■ **Villabona.** 09:00etan diana, Loatzo Musika Eskolako trikitilari taldearekin. 10:30ean, arkitectura tailerra haurrentzat,

Malkar plazan. 11:00etan, patata tortilla lehiaketa, 11-17 urte artekoentzat, Berdura plazan. 11:00etan, Cycling Maratoia Maiatzaren Lehena plazan. 14:30ean, bazkaria, Berdura plazan, Onddo Gazte Asanbladaren eskutik. 17:00etan, po-teo-kalejira, Orkestra Nazionalarekin. 17:30ean, haur parkea, Arroan. 19:30ean, txekor jatea eta sagardo dastaketa, Zumbeltz elkartearen eskutik, Txermingo ikastolan. 20:30ean, elkartasun kalejira, elizaren ondo-ko zabalgunetik, Herrira elkartearen eskutik. 21:00etan, Elkartasun afaria, Berdura plazan. 22:30ean, Eresargi Abesbatzak kontzertua emango du Gurea antzokian. 23:00etan, Desira, Lin Ton Taun eta Patxuko Nice taldeen kontzertuak plazan. (Festek uztailaren 31 arte iraungo dute).

Bihar

■ **Altzo.** 19:00etan, frontoi zaharreko pilota partiden finaler-

diak. Ondoren, zahagi ardoa egingo dute. Tartean, toka txapelketa jokatu da.

■ **Ibarrako San Inazio auzoa.** 11:00etan, haur festa. 18:00etan, patata tortilla lehiaketa. 18:30ean, herri kirolak, Ibarra soka tira taldearen eskutik. 21:00etan, herri afaria. Gero, DJ Andoniren emanaldia.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Morant Barber, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 673849.

■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-ena eta iritzien erantzukizunik.

Mauka GAURKO ESKAINTZA

Egunerokotasunetik ateratzeko plan ezin hobea Larraulen!

LARRAULGO HERRI OSTATUA
San Esteban-03
Larraun 20150 (GIPUZKOA)
Tel. 943 68 18 55

Prezioa **24€**

www.mauka.eu **berria**

19-90

Euskal Herria plaza, 5 • TOLOSA • Tel.: 943 119 017

Elketa Jatetxea

Billabonatarrek festa zoriontsuak igaro ditzatela!

San Miguel bailara, 2 • Hernialde
943 65 21 16 • elketajatetxea@hotmail.com
www.elketa.com